

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Zabor-jana ez da berria

AEB, 1972. Center for Science in the Public Interest elkarteko buru Michael Jacobsonek *junk-food* (Zabor-jana) kontzeptua erabili zuen lehenengoz. Ordutik hona, hitz horien erabilera ohiko bihurtu da balio nutrizional txikia duten eta osasunari kalte egiten dioten jakiak izendatzeko. Zabor-jana ordea, 1972a baino askoz lehenago sortu zen, jaki horien zaleak bezalaxe.

Ezaguna da Erromako hainbat enperadorek, Neron buru zutela, elikadura ohitura osasungarriari muzin egin ziotela. Asetu ondoren, goitika egin eta otordu amaigabeei jarraipena ematen zieten. Txolarrea saltsa gazi-gozotan eta txipiroi frijituak ohikoak ziren agintari erromatarren dieta koipetsuan. Saladino sultanak uneoro gozokiak jaten zituen eta, diotenez, Hirugarren Gurutzadan etsai zuen Rikardo Lehoi-Bihotz urdaileko gaitz batek hartu zuenean, udare eta abrikot konfitatuak bidali zizkion. Sultanak berak prestatu omen zituen gainera; militar, estatista eta mezenas bikaina izateaz gain, sukaldari trebea ere bazen. Rodrigo Borja (Alexandro VI aita saindua) fruta konfitatuen eta eztiz eta esnez egindako postreen zalea zen. Saladino gozozalea beti lirain mantendu zen, bere hiperaktibitateari esker; Borjaren profila, ordea, ederki borobildu zuen garai hartako zabor-janak.

Gurutzadaren ondoren, gozogintzaren loraldia iritsi zen Europara, azukrearekin batera. Mende batzuk lehenago Marco Polok pastak ekarri zituen Cataytik. Baina pastak eta beste gozoki italiar batzuk Katalina Medikik eraman zituen Frantziara, Henrike II.aren ezkondu



Gioacchino Rossini opera konpositorea **pizzazale amorratua zen; Mark Twain** idazlearen **bizioa kakahuete-gurina zen.**

zenean. Katalinaren astrologo kuttun Nostradamus ere trebea zen sukaldean, eta koipez eta azukrez betetako hainbat errezeta bildu zituen. Nostradamus berak kremaz betetako pasteletiko adikzioa omen zuen. Ingalaterrako Henrike VIII.ak, *ginger ale* eta haragizko pasteltxoak etengabe hobetzeko eskatu zien sukaldariei. Marie Antoinettek, berriz, *petit fours* eta bestelako gozokiak eskura izan behar zituen Versailles-eko lorategietan paseoa zebilenean. Otomandar Inperioko Ahmed printzearen dieta mahaspasateloek, ahuntz-esne sorbeteek eta ardoz betetako angurriek osatzen zuten. Ingalaterrako Jurgi IV.a izugarri gizendu zen pastelak janez, eta Jurgi VI.aren emazte Elizabeth-i "Galleta" ezizena ipini zioten jaki honi zion zaletasunagatik.

Baina zabor-jana ez zen soilik errege-familiatan irensten. Giovanni Jacopo Casanovak, sexugosea bukatu zitzaioenean, pastak, anis-bonboiak eta kaneladun konpotak janez asetu zituen bere premia berriak. Sadeko Markesak ere bere zaletasunak aldatu zituen azkenean, Charentongo eroetxean zegoela: pasta, gozoki eta patata frijitu kantitate beldurgarriak jaten omen zituen. Gioacchino Rossini operagilea pizzak janez gizendu zen, Lord Byronen bizioa, aldiz, txokolatea zen, eta Mark Twain-ena kakahuete-gurina. Thomas Alva Edison asmatzaile handiak pastelak, kafea eta, bereziki, freskagarri karbonatuak maite zituen.

Eta horrenbeste koipe eta azukre artean ito baino lehen, beste batzuek dieta vegetarianora jo zuten. Baina hori beste kontu bat da. ■

ARRASTOAK

TARRACO VIVA jardunaldiak burutu berri dira maiatzean Tarragonan (Katalunia). 1999an egin ziren lehenengoz jardunaldi hauek erromatarren garaian, hiri horretako bizimoduaren errekonstrukzio historikoa egiteko. Garai hartako errito erlijiosoak eta kanpamentu militarren giroa antzestu dituzte maiatzaren 10etik 20ra, eta erromatar hauteskundeek nola funtzionatzen zuten ere erakutsi dute —udal hauteskundeak baino aste-bete lehenago, hain zuzen—.

LA VIA AUGUSTA izenburuko telesaila estreinatu dute duela hilabete Katalunian-koTV3 katean. Hau ere Tarracon dago girotua. *Roma* telesail arrakastatsuen bidetari jarraiki, erromatar garaia islatzen du *La via Augustak*. K.a. 24 urtean abiatu da kontakizuna eta bi familien gorabeherak kontatzen ditu: bata erromatar hiritarrez osatua, bestea horien esklabuena. Oriol Junqueras historialaria aritu da aholkulari lanetan, girotzea ahalik eta fidelena izateko.



Tarraco Viva jardunaldietan erromatar garaiko hiriaren gorabeherak antzestzen dituzte.